



Liburutegia eta ikaskuntza autonomoa

Baliabide dokumentalak aurkitzeko, ulertzeko eta baliatzeko gida didaktikoa

3 Sorta Berdea

BLITZ

Liburutegiko sagua



Liburutegia eta ikaskuntza autonomoa

Baliabide dokumentalak aurkitzeko,
ulertzeko eta baliatzeko gida didaktikoa

Argitaratzailea

Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura Departamentua

Egilea

Villar Arellano Yanguas

Bildumaren zuzendaritza

Pedagogi Berrikuntzako
Zerbitzuko Dokumentazio Zentroa

Marrazkiak

Asís Bastida

Imprimaketa

Gráficas Lizarra, S.L.

D.L. NA - 103/2002

ISBN 84 - 235 - 2.197 - 4



Liburutegia eta ikaskuntza autonomoa

Baliabide dokumentalak aurkitzeko,
ulertzeko eta baliatzeko gida didaktikoa

Villar Arellano Yanguas

Blitz, liburutegiko saga bilduma berriro dator eskola liburutegiko ardua duten irakasleei laguntzeko asmoz. Oraingo hau sorta berdeko hirugarren alea da: Liburutegia eta ikaskuntza autonomoa. Baliabideak aurkitu, ulertu eta baliatzeko gida didaktikoa. Egilea, Villar Arellano, arlo honetan berezilaria da eta pedagogi aholkularitzan aritzen da Germán Sánchez Ruipérez Fundazioan, gaur egun haur eta gazte literaturan aritzen diren erakunde entzutetsuenetako bat.

Proposamen didaktikoak Lehen eta Bigarren hezkuntzako irakasleei zuzenduta daude eta sakontze maila ezberdinak planteatzen dituzte. Helburua da ikasleek behar adina trebetasun bereganatzea, curriculumeko arlo guztien ikaskuntza autonomoa eta baita dibertimendua ere ahalbidetuko dizkioten iturri dokumentalak, edozein euskarritan, aurkitzeko eta erabiltzeko. Bestalde, liburutegietako arau unibertsalak eskola garaitik hasita ezagutzeak erraztu egingen die ikasleei helduak direnean liburutegi publikoetan eta unibertsitatekoetan informazioa eskuratzea.

Ikastetxeko liburutegiak, horrenbestez, «erabiltzaileen prestakuntza» deiturikoa landu behar du, eskola liburutegiak, belaunaldi berriak gero eta modernoagoa eta konplexuagoa den informazioaren munduan sar daitezen prestatzeko.

Jesús Laguna Peña

HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARIA



aurkibidea

A. HAINBAT HAUSNARKETA

7

B. JARDUERAK

9

C. METODOLOGIA

16

Saioen garapena

19

LIBURUTEGIA ETA BERE BALIABIDEAK EZAGUTU

20

Saioa	1	Liburutegiko gunea ezagutu	20
	1.1.	Liburutegiko ipuina (Lehen Hko. 1., 3. maila)	21
	1.2.	Irakurketa partida bat jokatu (Lehen Hko. 5., 6. maila - DBH)	22
	1.3.	Plano bat eta mila aztarna (DBH - Batxilergoa)	23
Saioa	2	Dokumentuak eskura	24
	2.1.	Familien jokoak (Lehen Hko. 3., 4. maila)	24
	2.2.	Asmakizun liburua (Lehen Hko. 4., 5., 6. maila)	25
	2.3.	Mezu zifratuak (DBH - Batxilergoa)	26

INFORMAZIO ITURRIAK EZAGUTU

28

Saioa	3	Oinarrizko erreferentzia-lanak ezagutu	28
	3.1.	Non da arrotza? (Lehen Hko. 3., 4. maila)	29
	3.2.	Lehiaketa komodinekin (Lehen Hko. 5., 6. maila)	30
	3.3.	Testu itxiak (DBH - Batxilergoa)	31
Saioa	4	Informazio liburuak eta fikziozkoak ezagutu ...	32
	4.1.	Argazki-safaria (Lehen Hko. 1., 4. maila)	33
	4.2.	Blitzen bila (Lehen Hko. 3., 6. maila)	33
	4.3.	Liburuak denontzat (DBH - Batxilergoa)	35
Saioa	5	Bibliografikoak ez diren materialak	37
	5.1.	Zineari buruzko hormirudia (Lehen Hko. 1., 4. maila)	37
	5.2.	Liburutegia iragarri (Lehen Hko. 5., 6. maila)	38
	5.3.	Hemendik mundura (DBH - Batxilergoa)	39

DOKUMENTUAK BILATU

40

Saioa	6	Proiektuak garatu	41
	6.1.	Teletekako berriak (Lehen Hko. 1., 4. maila)	41
	6.2.	Bibliotours Txangoak (Lehen Hko. 5., 6. maila - DBH)	42
	6.3.	Aste beldurgarria (DBH - Batxilergoa)	43

.....

Eranskinak

46

I Eranskina: **Liburutegiei buruzko haurrentako liburuak**

46

II Eranskina: **Ozenki kontatu edo irakurtzeko haurrentako ipuinak**

46

.....

Bibliografia

47

.....

A. HAINBAT HAUSNARKETA

a. Eskola liburutegia: heziketa-gunea

Eskola liburutegi bat garatzeko proiektuari aurre egiterakoan, askotan fondoaren antolaketarekin (liburuak erregistratzea, katalogoak prestatzea, informatizazioa...) eta gunea egokitzearekin zerikusia duten kontuak hartzen dira abiapuntutzat, eta gerorako uzten da eskaintzen dituen heziketa aukerak eta ikastetxeko pedagogi proiektuan nola txertatu aztertzea.

Horren ondorioz, eskola liburutegiak irizpide tekniko «objektiboen» arabera antolatu ohi dira, eta hauek ez dira beti bat etortzen bere baliabideak erabiltzen dituztenen heziketa beharrekin. Haatik, eskola liburutegiaren antolakuntzari buruzko edozein erabakik eragin zuzena du probetxu didaktikorako eskaintzen duen aukeran. Horregatik, garrantzitsua da liburutegi proiektua prestatzerakoan honek ikastetxean izan dezakeen hezkuntz eginkizunaren inguruko hausnarketatik abiatzea.

Liburutegia benetako ikasgune bilakatzeko lehenengo pausoa sarbidea erraztea da. Horrenbestez, liburutegirako prestakuntza programa bat jarduera edota unean uneko estrategia multzo bat baino gehiago da, eta abiapuntua gunearen eta baliabideen antolaketa izan behar du.

b. Ikaskuntza autonomia talde proiektu modura

Ikastetxe bateko bizitza pedagogikoan osotara integraturiko liburutegia ikaskuntza autonomorako baliabide nagusienetako bat izan daiteke. Hori gauzatzeko beharrezkoa da bultzatzea askotariko iturri dokumentalak eskuratzeko gaitasuna, lortutako informazioa jarrera kritikoarekin aztertzeke gaitasuna eta informazio hori ezagutza bihurtzeko gaitasuna. Hau heziketa-prozesu konplexua da, irakasle guztien elkarlana behar duena.

Ikastetxeko jarduera pedagogikoa eskolako liburutegiaren inguruan antolatuko bada, erabiltzaileen prestakuntza da liburutegiak dituen ahalmen guztiak martxan jartzeko bidea. Horregatik, ez da zentzuzkoa prestakuntza jarduerak unean uneko estrategia isolatu gisa proposatzea. Liburutegiko lan hezitzailea irakasle talde osoaren ardura da. Arlo guztiekin lotura duen proiektua da, beste hainbat ikaskuntza proiektuekin elkarbizitzan.

.....

c. Liburutegiko erabiltzaileen prestakuntza

Erabiltzaileen prestakuntzak ekimen sorta zabala biltzen du bere baitan. Ekimen hauek edozein informazio eskaerari autonomiaz erantzuteko gaitasuna bultzatu nahi dute, baliabide dokumentalak ezin hobe aprobetxatuz.

Parte-hartze hauek curriculumeko arlo ezberdinen osagai izan daitezke, edota jakintza-alar arteko proiektu gisa planteatu daitezke. Edonola ere, martxan jarri aurretik plan-gintza egin behar da, ikasleen beharretatik abiatuz, lan proposamen motibagarri eta eraginkorrak eskaintzeko.

Helburu orokor gisa, erabiltzaileen prestakuntzak lagundu nahi du ikasleek ondoko gaitasunak garatu ditzaten:

-
- Eskolako liburutegian nahiz bere atal ezberdinetan autonomiaz moldatu eta eskaintzen dituen zerbitzuak eraginkortasunez erabili, unean uneko behar zehatzen arabera (eskolako lan bat egin, daturen bat bilatu, herrialde bat bilatu, bibliografia bat prestatu...).
-
- Balizko iturri dokumentalak (hiztegiak, entziklopediak, dosierrak...) eta hauen ezau-garri nagusiak eta euskarri ezberdinak (liburuak, bideoak, CDRomak...) ezagutu.
-
- Informazioa zehaztasunez eskatu, dokumentu zehatz baten bilaketak dituen balizko alderdiak zedarritzen jakin (gako-hitzak zerrendatu, esparru kontzeptuala finkatu, erantzun beharreko galderak adierazi...).
-
- Dokumentuak sailkatzeko eta antolatzeke sistema ezagutu eta ulertu eta haiek nola eskuratu jakin, baliabide egokiak erabiliz (katalogoa, sailkapen-taula...).
-
- Informazioa eskuratu, hautatu eta interpretatu, baita hainbat iturrietan egiaztatu ere.
-
- Informazioa era kritikoan erabili, bilaketaren xedearen arabera, eta berau antolatzen eta itzultzen jakin.
-


B. JARDUERAK

Ondoren, eskolako liburutegian garatzeko prestakuntza jarduera multzo bat eskaintzen da. Hiru helburu orokorretatik abiatuz egituratu dira:

**LIBURUTEGIA EZAGUTU ETA
BERE BALIABIDEAK NOLA
ESKURATU JAKIN**

**BALIZKO INFORMAZIO
ITURRIAK ETA
DOKUMENTUEN EUSKARRI
EZBERDINAK EZAGUTU**

**DOKUMENTU BILAKETA BATI AURRE
EGITEN JAKIN ETA BERE EMAITZAK
EGOERA PRAKTIKOETAN
ERABILTZEN JAKIN**



.....



LIBURUTEGIA ETA BERE BALIABIDEAK

SAIOA

HELBURUAK

1

Liburutegiko gunea

- Liburutegiarekiko interesa piztu.
- Eskaintzen dituen aukerak ezagutarazi.
- Askotariko materialak ezagutu.
- Eremu eta atalak ezberdindu.
- Liburutegiko funtzionamendu arauak ezagutu.

2

Dokumentuak eskura

- Materialak antolatzearen garrantzia ulertu.
- Sailkapen sistema ezagutu.
- Katalogoak erabiltzen eta materialak liburutegian aurkitzen ikasi.
- Txartel eta errotuluen baligarritasuna ezagutu.



JARDUERAREN IZENBURUA	MAILA	DESKRIBAPENA
-----------------------	-------	--------------

1.1 Liburutegiko ipuina	<i>Lehen Hezkuntza (1., 3.)</i>	Ipuin bat kontatuz edo ozen irakurtzetik abiatuta, arrastoen joko bat proposatzen da, non parte-hartzaileek hainbat pertsonaia, leku edo gauza aurkitu behar dituzten liburutegiko atal ezberdinetan.
1.2 Irakurketa partida bat jokatu	<i>Lehen Hezkuntza (5. eta 6.) DBH</i>	Koloreetako laukiak dituen joko-taula batekin, galderak eta probak proposatzen dira, liburutegiari lotutako hainbat alderdiei buruz: funtzionamendu arauak, informazioa bilatzea, literatura lanak, sustapen jarduerak... Ikasleek, taldeka, txandaka aurrera joan dira dato erraldoi baten laguntzaz.
1.3 Plano bat eta mila aztarna	<i>DBH Batxilergoa</i>	Jokoaren helburua liburutegian hainbat material aurkitzea da. Material hauek dauden atalak mapa mutu batean kokatuko dira.

2.1 Famillien jokoak	<i>Lehen Hezkuntza (3. eta 4.)</i>	Karta batzuen atzealdean hainbat libururen azalak erreproduzituko dira eta hauekin sailkapen jarduera bat proposatuko da, liburutegian materialen bilaketa lantzeko.
2.2 Asmakizunen liburua	<i>Lehen Hezkuntza (4., 6.)</i>	Asmakizun herrikoietan egiten den antzera, arrastoak ematen dira ikasleek hainbat liburu aurki ditzaten, liburutegiko katalogo eta sailkapen sistemaren laguntzaz.
2.3 Mezu zifratuak	<i>DBH Batxilergoa</i>	Katalogo-zenbaki topografikoen ulerkuntza eta liburutegiko katalogoen erabilera hizkuntza sekretu baten osagai gisa aurkezten dira. Hizkuntza honek mezu zifratuak elkartrukatzeko ahalbidetzen du, liburutegiko kodeetatik abiatuz.



INFORMAZIO ITURRIAK

SAIOA

HELBURUAK

3

Oinarrizko erreferentzia-lanak

- Erreferentzia-lanen baliagarritasuna ulertu.
- Erreferentzia-lan garrantzitsuenak eta bere ezaugarriak ezagutu.
- Bilaketarako oinarrizko trebakuntza: hurrenkera alfabetikoa, laburdurak interpretatzea, oharrak hartzea...

4

Informazio liburuak eta fikziozkoak

- Liburuen aniztasuna, baita hauen euskarri eta ikuspuntuena ere, ezagutu.
- Fikziozko lanak nola sailkatu eta antolatzen diren ezagutu.
- Liburuak aurkitzen ikasi katalogoaren laguntzarekin.
- Dokumentu-liburuetan laguntza tresnak aurkitu (aurkibideak, glosategiak...)

5

Bibliografikoak ez diren materialak

14. orrialdean

JARDUERAREN IZENBURUA	MAILA	DESKRIBAPENA
-----------------------	-------	--------------

3.1 Non da arrotza?	<i>Lehen Hezkuntza (3. eta 4.)</i>	Elkarrekin zerikusia duten hitzen zerrenda batean «hitz arrotza» aurkitu behar da, horretarako erreferentzia-lanak erabiliz, hitzen esanahia ezagutzeko eta ezaugarri komunak eta bat ez datozenak antzemateko.
3.2 Lehiaketa komodinekin	<i>Lehen Hezkuntza (5. eta 6.) DBH</i>	Kulturari buruzko galderen lehiaketa, aukerazko lau erantzunekin. Laguntzeko hainbat erreferentzia-lan izanen dituzte, komodin gisa: hiztegia, hizkuntza ezberdinen hiztegiak, entziklopedia eta atlasa.
3.3 Testu itxiak	<i>DBH Batxilergoa</i>	Ikasleek itxuraz ulergaitza den testu bat jasoko dute: Beraiek ezagutzen ez dituzten termino eta esapidez betetako testu trinko bat izanen da (beste hizkuntzetako hitzak, hitz arraroak, izenak, zeinen jatorria ikasleek ezagutzen ez duten...). Irakurtzeko eskatuko zaie, pizgarri modura esanez testuan sorpresa bat dagoela gorderik (kontakizun labur bat, abesti bat, bideo irudi batzuk...).

4.1 Argazki-safaria	<i>Lehen Hezkuntza (1., 4.)</i>	Jarduera liburutegiko liburuaren artean egiteko argazki-safari gisa proposatzen da. Helburua hau da: animalia zehatz baten (hartzak, arratoiak, untziak...) ahalik eta irudi gehien «ehizatzea». Horretarako animalia horri buruzko liburuak edota bere argazkiak edo marrazkiak dituztenak bilatu behar dituzte katalogoan eta apaletan.
4.2 Blitzen bila	<i>Lehen Hezkuntza (3., 6.)</i>	Jarduera honetan ikasleek liburutegiko liburuak miatuko dituzte Blitz maskotaren aztarnari jarraituz. Pertsonaia honek ibilbide bat egingen du liburuaren artean mezu eta arrastoen bidez. Hauek legunduko die katalogoen erabilpenean trebatzen eta sailkapen taula erabiltzen.
4.3 Liburuak denontzat	<i>DBH Batxilergoa</i>	Ikasleei proposatuko zaie gai bati buruzko bibliografia zehatza prestatzeko. Gaia beraiek aukeratuko dute iradokizunen zerrenda batetik.

INFORMAZIO ITURRIAK-en segida

SAIOA

HELBURUAK

5

Bibliografikoak ez diren materialak

- Bibliografikoak ez diren informazio iturrien ezaugarriak ezagutu.
- Formato eta euskarri ezberdinetan informazioa bilatzen ikasi, baita berau erabiltzen ere.
- Prentsari aitortu gaurkotasan handiko informazio iturri gisa duen balioa.
- Interneteko dokumentuen ezaugarriak ezagutu.

DOKUMENTUAK BILATU

SAIOA

HELBURUAK

6

Proiektuak garatu

- Informazioak proiektuak garatzeko duen baliagarritasuna ulertu.
- Dokumentuen bilaketa lan etapa ezberdinetan antolatzen ikasi.
- Liburutegiko baliabideak eraginkortasunez erabili.
- Informazioa aukeratzeko irizpideak garatu.
- Talde lanaren balioa ezagutu.

JARDUERAREN IZENBURUA	MAILA	DESKRIBAPENA
-----------------------	-------	--------------

5.1 Zineari buruzko hormirudia	<i>Lehen Hezkuntza (1., 4.)</i>	Haurrendako film interesgarrien iragarki taula bat egiteko xedearekin, ikasleek hainbat materialetan begiratuko dute. Hauen ezaugarriak aztertuko dituzte, baita hauek duten informazioa modu erraz eskuratzea ahalbidetzen duten tresnak ere.
5.2 Liburutegia iragarri	<i>Lehen Hezkuntza (5. eta 6.)</i>	Jarduera honen mamia eskola liburutegiari buruzko publizitate kanpaina prestatzea da. Horretarako prentsan, telebistan, irratan, interneten eta ikastetxera nahiz etxeetara iristen diren publizitate-foiletoetan agertzen diren iragarkien ereduari jarraituko zaio.
5.3 Hemendik mundura	<i>DBH Batxilergoa</i>	Jarduera honen bitartez ikasleek askotariko material ez bibliografikoa bilduko dute, eremu geografiko zehatz bati buruzkoa: eskualde bat, harrialde bat edota kontinente bat. Bildutako guztiarekin liburutegia girotu eta erakusketa dokumental bat eskaini beharko dute, aukeratu eremuko geografia, historia, folklorea eta beste hainbat oinarritzko alderdi ezagutarazteko.

6.1 Teletekako berriak	<i>Lehen Hezkuntza (1., 4.)</i>	Ikasleei proposatuko zaie albistegi bat prestatzea, bideo formatoan. «Teleberrri» bateko ohiko atalak banatuko dira talde txikien artean eta dokumentu bilaketa ezberdinak garatuko dira albistekak idazten laguntzeko.
6.2 Txangoak Bibliotours	<i>Lehen Hezkuntza (5. eta 6.) DBH</i>	Ikasturte amaieran ikasbidaia egiteko gonbidapena aitzakitza hartuta, ibilbide, hiri edota naturgune bati buruzko ikerketa egitea proposatuko da. Dokumentu bilaketaren emaitzak aukeraturatuko lekuari buruzko bidai gida batean islatuko dira.
6.3 Aste beldurgarria	<i>DBH Batxilergoa</i>	Ikasleek beldurrezko istorioak irakurtzeko duten interesa kontuan hartuta, astebetetz beldurrezko generorekin (zinean, literaturan edo folklorea) loturiko jarduerak egitea proposatuko zaie. Hauek antolatzeko eta garatzeko liburutegian eginiko dokumentu bilaketa sakon batean oinarrituko dira.

C. METODOLOGIA

Helburuetako bakoitza hainbat lan saiotan garatzen da (sei guztira) eta honek ahalbidetzen du gida hau tailer dokumental gisa erabiltzea, non jarduerak etapaka burutzen diren, ikaskuntza mailakatur. Bistan denez, helburu hauek hein ezberdinean beteko dira ikasleen adinaren arabera, eta beharrezkoa da kasuan kasuko taldearen ezaugarrietara egokitzea.

Proposamenen moldaketa errazteko asmoz, hezkuntza maila ezberdinetan landu ahal izateko, saio bakoitzaren hiru bertsio eskaintzen dira, zailtasun maila ezberdinekoak (motibazioari, edukiei eta metodologiari dagokionean). Mailaketa hau malgua da ordea: zenbait kasutan, jarduera bera proposatu dakieke adin talde ezberdinei edo, gela berean, hainbat ikaskuntza indartu daitezke saio jarraituak burutuz, dinamika ezberdinekin.

Dinamikak jarduera isolatu gisa planteatzeko aukera ere bada, une jakinetan dokumentazio-lanarekin zerikusia duten alderdi zehatzak lantzeko (adibidez: erreferentziazko lanen saioa -3.a- landu, ikusten denean ikasle talde batek material hau erabiltzeko arazoak dituela).

Saio bakoitzak 60-90 minutuko iraupena du eta 20-30 kideko ikastaldearentzat prestatuta dago. Proposamen guztiek ezaugarri metodologiko komunak dituzte:

.....

■ **Talde lana:** Jarduerak egiterakoan giro lasaia eta komunikatiboa izateko, ikasleak talde txikietan banatuko dira. Gainera, elkartruke pertsonal hau ikaskuntza eta sozializazio iturri iraunkorra da.

.....

■ **Ezagutuz ikasi:** Dinamikek metodologia aktiboa dute oinarri eta honek ikasleak jarduerako protagonistak bilakatzen ditu. Azalpen gutxi ematen zaizkie aurretik, abiapuntua esperimentazioa da, eta hortik aurrera, irakaslea ikaskuntzak egituratzeko eta oinarritzeko laguntza bat da.

.....

■ **Metodologia ludikoa:** Ikasleen parte-hartzea ezinbestekoa da haien autonomia sustatzeko. Horregatik, ahalegin berezia egin da adin ezberdinetarako elementu erakargarriak bilatzen, motibagarriak izan daitezen. Noski, erabiltzaileak prestatzeko diseina daitezke hain «dibertigarriak» ez diren jarduerak, beste metodologia bat erabiliz, baina hemen baliabide ludikoak erabiltzea erabaki dugu, liburutegiaren irudi positiboa izan dezaten, elkargune eta entretenimendu gune gisa.

.....

.....

Finean, hainbat dinamika eskaintzen dira, eskolako liburutegian prestakuntza lanari aurre egiteko eredu izan daitezkeenak. Xedea ez da baliabide didaktikoen zerrenda zehatza ematea, baizik eta abiapuntua eskaintzea, irakasleek ezinbesteko osagaia gehi dakioten: beraien ardurapeko ikastaldearen eguneroko errealitate berezia. Zalantzarik gabe lan handia da (fitxak, jokoak, lehiaketak... diseinatu), baina errazago egin daiteke beste irakasleekin materialak eta ideiak elkartrukatzuz.

.....



**SAIOEN
GARAPENA**

LIBURUTEGIA ETA BERFE BALIABIDEAK EZAGUTU

Jada aipatu bezala, prestakuntza ekimen bat aurkeztu baino lehen beharrezkoa da ikasleen behar zehatzak kontuan hartzea. Horregatik, aipatu helburu bakoitzari dagokionez, ikasleen artean sumatzen ditugun zailtasun nagusiak azalduko ditugu.

Helburu orokor honen aurrean, sortzen den lehen zailtasuna hauxe da: ikasleek liburutegiaz duten irudia. Eskuarki gune hau biltegitzat hartzen dute, liburuz betetako areto bat bezala, beraientzat erakargarritasunik ez duena.

Liburutegian lanen bat egitea proposatzen zaienean ez dira gai izaten apalategi artean orientatzeko. Inongo ordenarik gabe aritzen dira apaletan liburu bila, ez baitakite katalogoak erabiltzen, ezta sailkapen sistema ezagutzen ere.

Azkenik, saialdia bertan behera uzten dute zapuzturik, eta liburuzainaren bila joaten dira beraien zalatza argitu dezan.

Saioa **Liburutegiko gunea ezagutu**

Sarrera moduko saio honek ahalbidetzen du liburutegiko gunea eta bertako baliabide ezberdinak ezagutaraztea.

HELBURUAK

- Liburutegiarekiko jarrera positiboa eta bere proposamenekiko interesa piztu.
- Liburutegiak eskaintzen dituen aukerak ezagutu: informazioa bilatu, liburuak ezagutu eta maileguz hartu, istorioak eta iritziak elkartrukatu...
- Liburutegian aurki daitezkeen askotariko materialak ezagutu: dosierrak, monografiak, literatura lanak, egunkariak eta aldizkariak...
- Liburutegiko eremu eta atal ezberdinak ezberdinu: erreferentzia, literatura, ikus-entzunezkoak, hemeroteka...
- Liburutegiaren antolakuntzaren oinarritzko alderdiak ezagutu, baita funtzionamendu arauak ere.

1.1 Liburutegiko ipuina (Lehen Hko. 1., 3. maila)

Ipuin bat kontatzea (liburutegiaren sorrerari buruzko fantasiako kondaira edo bertan gertatutako pasadizo bitxiren bat) izan daiteke abiapuntua, liburutegia esploratzera eta bertako askotariko atal eta materialak ezagutzera bultzatuko dituen jarduera bati ekiteko.

Liburutegiei buruzko ipuin asko erabil daitezke sarrera honetarako (I Eranskinean haurrendako liburuen zerrenda bat azaltzen da, liburutegi batean gertatzen diren edo modu batean edo bestean liburutegiekin zerikusia duten istorioekin), nahiz eta haur literaturako hainbat lan interesgarri egon haurrei proposatutako jardueretan arreta jarrazteko: Donde viven los monstruos, Los tres bandidos edo Frederick dira, besteak beste, lehen aldiz liburutegira joaten diren haurrak liluratuko dituzten istorio onen adibide batzuk (ikus ezazu II Eranskina).

Txikienekin jarduera hau egiteko, interesgarria izan daiteke goragoko mailetako ikasle-en laguntza. Jatorrizko ipuin bat sortzea, liburutegiaren sorrerari buruzko fikziozko istorio bat, proiektu bizigarria izan daiteke helduenentzat, baita beste jarduera batzuen abiapuntu ere (istorioa grabatu efektu bereziaz lagunduta, txotxongiloak eta eszenatokiak egin, ipuina antzestu, itzal-antzerkia, diaporama, bideo-filma...).

Aukeratutako ipuinaren irakurketak nahiz kontaktak testuinguru ludiko bat sortarazten du, non planteak daitekeen liburutegian zerbait bilatzeko jarduera bat, ipunetik ihes egin duten hainbat pertsonaia edo gauza aurkitzeko (argumentuak berak lagunduko digu bilaketaren alderdiak zehazten eta berau gauzatzeko txartelak, kromoak, gauza txikiak, paperezko irudiak... erabil ditzakegu). Horrela, liburutegiak dituen askotariko material eta baliabideak ezagutzen dituzten aldi berean, ikasleak gune eta atal ezberdinetan barrena ibiliko dira.

Zenbait ipuin irakurri edo kontaktu ondoren proposatzeko bilaketa adibideak:

- **DONDE VIVEN LOS MONSTRUOS:** Ipuineko munstroak ahaide batzuk ikustera joan dira literatura sailera. Bila itzazu han munstroei buruzko beste liburu batzuk eta beraien barnean begira ezazu. Haien orrialdeen artean aurkituko dituzu Maxen lagun irudiak, kartoi meheaz eginak. Aukera ezazu horietako liburu bat eta eska iezaiozu liburuzainari mailegatzeko, etxera eraman ahal izateko.
- **EL SECUESTRO DE LA BIBLIOTECARIA:** Ba al dakizu non jasotzen diren egunkariak liburutegian? Piratek han gorde dute altxorra, egunkari bateko ekonomia sailean. Bila ezazu hilabete honetako egunkarietako laranja koloreko orrialdeetan eta 100 euroko billete pila bat aurkituko duzu han itsatsirik. Ez da zilegi zeuretzat hartzea!

- *EL VIOLÍN DE PATRICK*: Patrickek, bere biolinarekin, musikariei, abestiei eta instrumentuei buruzko hainba liburu koloreztatu ditu. Bila itzazu musika liburuak eta hauen orrialdeen artean begira ezazu. Bertan koloretako paperekin eginiko musika nota asko aurkituko dituzu. Ekar itzazu hiru gutxienez.

1.2 Irakurketa partida bat jokatu (Lehen Hko. 5., 6. maila - DBH)

Galderez eta liburutegiarekin lotura duten probez osatutako joko hau baliagarria izanen da sarrerako proposamen hau dinamizatzeko.

Mahaiko joko askoren arauak ezagunak dira haur eta gazteentzat eta erraz egoki daitezke liburutegian erabiltzeko. Horregatik saio honen xedea lortzeko ezin egokiagoak dira, adibidez, partxisa, antzara-jokoa, trivial-a ...

Koloretako laukiak dituen taula erraldoi batetik abiatuta (diseinatzeko eta egiteko ardu-
ra ikasleek har dezakete berriro), galderen eta proben maila ezberdinak ezar daitezke (bilaketa errazak apaletan, asmakizunak mimika edo marrazkien bidez, istoriotxoak asmatu, ikakurketak edo kontakizunak...), liburutegiaren hainbat alderdi kontuan hartzen dituztenak, baita materialenak eta eskaintzen dituen zerbitzuenak:

- *LITERATURA*: Literaturako toki eta pertsonaiak, lanen izenak, egile ezagunenak...
- Adibidez: Ezagutzen al duzu ipuinetako elefante famaturik?
- *INFORMAZIOA*: Gaur egungo gaiak, gertakizun nabarmenak eta pertsona ospetsuak, material motak...
- Adibidez: Aurki itzazue hiru informazio ezberdin (liburuetan, entziklopedietan, egunkarrietan, bideoetan...) alpinismoari buruz.
- *LIBURUTEGIAREN FUNTZIONAMENDUA*: karneta, mailegua, ordutegia...
- Adibidez: Imajina ezazue liburuzainak zaretela. Azal iezaiezue laburki ikaskideei zer egin behar duten liburu bat maileguz hartzeko eta etxera eramateko.
- *SUSTAPEN JARDUERAK*: Liburu bat gomendatu, lelo bat sortu, maskota bat diseinatu, seinaleztapen txartelak prestatu...
- Adibidez: Aukera ezazue liburu bat eta aurkez iezaiezue ikaskideei. Irakasleak lagunduko dizue aurkezpena prestatzen.

Adibide hauei jarraituz ibilbidean zehar egiteko galdera eta proba pila bat presta daiteke. Lan hau irakasleek egin dezakete, edota ikasleek ere lagundu dezakete (partehartzaile bakoitzak atal bakoitzeko proba bat diseinatzeko badu, emaitza galdera sorta aberats eta askotarikoa izanen da).

Dena dela, garrantzitsua da irakasleak proba hauek idazteko orientabideak ematea eta ondoren berrikustea, oreka mantenduz ondokoen artean: alde batetik, nolabaiteko zailtasuna duten eta parte-hartzaileentzat erronka izan daitezkeen kontu berriak, eta bestetik, ikasleek jada ezagutzen dituzten alderdi errazagoak, non aurretik liburutegietan eta irakurketa kontuetan izandako esperientziak baliatu ditzaketen. Honek lagundu dezake liburutegia eta bere baliabideekiko konfiantzazko jarrera indartzen.

Behin material hauek prestatuta, jokoaren dinamika erraza da. Ikastaldea talde txikietan banatuko da eta hauetako bakoitza kolore ezberdinetako fitxen bidez ordezkaturiko da taulan. Aurrera joateko, fitxak laukietan barna txandaka mugitzen dira, dado batekin ateratako zenbakiaren arabera (dado erraldoi bat egin daiteke, aparrarekin edo kartoi mehearekin, edo edozein mahaiko jokotan erabiltzen diren dado soilak erabil daitezke). Laukietako bakoitza atal ezberdin bati dagokio. Taldeak egokitzen zaion proba gainditu behar du aurrera jarraitu ahal izateko. Taldeek erantzuna prest dutenean, jokia eten egingen da gainerakoek entzun dezaten.

Jokoa zehar, irakasleak zalantzak argitu, azalpenak sartu eta azaltzen diren alderdi garrantzitsuenak laburbilduko ditu.

1.3 Plano bat eta mila aztarna (DBH - Batxilergoa)

Kasu honetan, liburutegira egiten den lehen bisitaldi antolatua apalategien arteko miiaketa gisa planteatzen da. Honek ahalbidetzen du ikasleek sail eta material ezberdinak plano mutu batean kokatzea.

Liburutegira iristen direnean, parte-hartzaileek plana jasotzen dute, eta honekin batera zerrenda bat, non bilaketaren helburuak agertzen diren. Abiapuntu ezberdinetatik hasita aurkitu behar duten material sorta bat da:

- Liburu, bideo edo CD baten izenburua.
- Arlo baten izena, berari buruzko lan zehatz bat aurkitu behar dutelarik.
- Literatur autore baten izena.
- Liburu zehatz baten katalogo-zenbaki topografikoa.
- Egunkari edo aldizkari baten izenburua.
- Izen bat eta izen berezi bat hauek izendatzeko (hiztegi, entziklopedia edo atlasetan bilatuz).

Zerrenda bakoitzaren 4 edo 5 bertsio daude, beraz ikasgela bakoitza beste hainbeste bilaketa-taldetan antolatuko da eta bakoitzak helburu ezberdina izanen du (horrek liburutegiko zirkulazioa erraztuko du, taldeak gunee eta atal ezberdinetan banatuko baitira).

Jokoa dokumentu bakoitza aurkitzean datza, planoan kokatuz zein ataletan aurkitu den.

Adibidez:

- Ba al dakizu nor den Roald Dahl? Liburutegian egile honen hainbat liburu badaude ere, soilik bakar batean azaltzen da botika miresgarri baten formula. Bila ezazu eta egiaztatu bere osagaien artean azufaifa agertzen den. Gogora ezazu, gainera, planoan adierazi behar duzula liburua non aurkitu duzun.
- Aizu, ba al dakizu zer den azufaifa? Erreferentzia atalean aurkitu ahal izanen duzu erantzuna. Idatz ezazu planoan non dagoen begiratu duzun liburua.

Saioa **2** Dokumentuak eskura

Saio honetan liburutegiko fondoak eskura izateko hainbat oinarrizko baliabide erakutsiko dira: sailkapen sistema eta katalogoak.

HELBURUAK

- Materialak sailkatzeak eta liburutegian antolaketa-arau batzuk izateak duten garrantziak ohartu.
- CDUren edo liburutegian erabiltzen den sailkapen sistemaren oinarrizko ezagutza: arlo ezberdinetarako ezartzen diren atalak eta adinaren araberako mailaketa, horrelakorik balego.
- Liburutegiko katalogoak ezagutu eta hauetan dokumentuak bilatzen ikasi izenburutik edo egilearen izenetik abiatuta, edo gai-katalogo bat egongo balitz, gai batetik abiatuta.
- Katalogo-zenbaki topografikoa erabiltzen ikasi, liburuak katalogoan bilatzeko eta liburutegian aurkitzeko.
- Idazkun eta txartel seinaleztatzaileen balioaz ohartu liburutegian materialak bilatzeko errazago orientatzeko.

2.1 Familien jokoa *(Lehen Hko. 3., 4. maila)*

Familien karta-joko ezagunak sarrera emanen dio sailkapen-jarduera bati. Jarduera honek fondoaren antolaketaz ohartzen laguntzen du, baita liburu baten gaia zehazten haren izenburutik, aurkibidetik edota ilustrazioetatik abiatuta. Liburu zehatz batzuk

aurkitzeko katalogoetan egin beharreko bilaketek osatuko dute liburutegiko antolakuntzari buruzko jarduera hau.

Hasteko, kartoi mehearekin 40 karta zuri prestatuko dira. Txartelak taldetan edo familiaratan banatuko dira eta hauek liburutegiko fondoak sailkatuta dagoen atal handiei dagozkie. Sailkapenean zenbat atal dauden (10 gehienez) hainbat familia ezar daitezke, baina jokoak errazagoa eta arinagoa da lau ataletik egiten bada.

Adibidez:

- Ingurumenaren ezagutza, matematika eta informatika.
- Arteak, musika eta eskulanak.
- Kirolak eta jokoak.
- Ipuinak eta literatur lanak.

Atal hauek bereizteko ikur bat marraztuko da karta bakoitzaren atzealdean.

Ikasleak talde txikietan banatuko dira. Kartak banatzen dira, talde bakoitzak ataleko karta bat jasoko du. Proposamena bi alditan garatuko da:

- *Karten diseinua*: Familia bakoitzeko liburu bat aurkitu behar da eta bere azala dagoen karta marraztu. Behin karta guztiak egin eta liburuak apalategietara itzuli ondoren, karta guztiak batu eta nahasi behar dira.
- *Bilaketa jokoak*: Txandaka, talde bakoitzak karta bat mahairatuko du, atzealdea (familia) erakutsi gabe. Helburua da liburuak liburutegian aurkitzea eta zein atali dagokion asmatzea. Talde batek berak diseinatutako karta bat azaltzen badu, beste karta bat aukeratu du eta lehenbizi azalduko hurrengo taldearentzat gordeko da.

2.2 Asmakizun liburuak (Lehen Hko. 4., 5., 6. maila)

Asmakizun jokoak da eta asmakizunen soluzioak katalogoak eta liburutegiko sailkapen taula erabiliz aurkituko da. Asmakizun herrikiok bezala formulatzen dira baina edukiak izenburu, autore, katalogo-zenbaki, genero edota liburuen gaiak buruzkoak dira.

Adibidez:

- *Letaginak ditut, odola edaten dut, hilobi batean lo egiten dut*
Bram Stokerrek sortu ninduen. Zein katalogo-zenbaki izanen dut?
(Ikasleek «Stoker» bilatzen badute egileen katalogoan, Drácula bere eleberri ezagunenaren izenburua aurkitu ahal izanen dute. Fitxak emanen die bilatzen ari diren katalogo-zenbakia).

- *Oroitzapen liburu bat naiz, Atxaga izeneko baten lana*
Marrurik ere egin gabe, ba al dakizu non egiten dudan larra?
(Asmakizuna asmatzeko, egileen katalogora jo eta han «Atxaga» bilatu daiteke, edo izenburuen katalogoan «memorias» hitzetik hasten den lanen bat bilatu daiteke. Bi aukera hauek «Behi euskaldun baten memoriak» liburuaren fitxaraino eramango gaituzte. Orain egin behar den bakarra da liburua bilatzea, katalogo-zenbakitik abiatuta, eta aurkitutakoan eskatutako datua bere orrialdeetan bilatzea).
- *Geografiakoa banaiz ere, zahartzen ari naiz egunez egun*
herialde guztiak dauzkat, ekar itzazu, nahiz eta egun hurrun.
Atlas batez ari garela asmatu ez dutenek «geografia» aztarnari jarraitzen ahal diote. Liburutegiko atal horretan bilatuz gero, erraz aurkituko dute herrialde guztiei buruzko lan bat.
- *Bi ahatetxo gara eta hegan egiten dugu*
Liburutegian liburu handi bat dugu bizilagun
Beharbada argitu beharko dugu bi ahatetxoek zenbaki bati egiten diotela erreferentzia (22). CDUko atal egokian bilatzen badugu aipatu liburua aurkituko dugu (Biblia).

Ikus daitekeenez, askotan asmakizunaren soluzioa aurkitzeko hainbat lan egin behar ditugu jarraian (katalogo batean bilatu, katalogo-zenbakia hartu, apalegian bilatu, daturen bat hartu edo sail bereko liburuen artean bila jarraitu). Bilaketei modu erraz eta sistematikokoago aurre egiteko, asmakizuna ikasleekin batera irakurri dezakegu, baita hauei lagundu ere bilaketa hainbat etapatan banatzen.

Parte-hartzaileen adinaren arabera, bigarren zati bat planteatu daiteke, non beraiek asmakizun bat formulatu ahal izanen duten ikaskideek asma dezaten.

2.3 Mezu zifratuak (DBH - Batxilergoa)



Haur eta gazte askok asmatzen dituzte kode sekretuak mezu ezkutatuak elkartrukatzeko. Joko hau baliabide motibagarria izan daiteke ikasleak katalogo-zenbakiak interpretatzen trebatzeko. Honek ahalbidetzen du hainbat jarduera planteatzea, hala nola katalogoetan bilaketak egitea, sailkapenak erabiltzea eta liburutegiko kodeak itzultzea.

Adibidez:

- Atzo **E/ROW/har** bukatu nuen. Interesgarria da, baina **E/LEG/mag** gehiago gustatu zitzaidan, oso gustoko baititut **taumaturgoen** istorioak. Ba al dakizu sailkapeneko **1** edo **8** ataletan gai horri buruzko lanik dagoen? (mesedez, emaidazu izenburua klabeen).

Asmakizunen liburua bezala, baliagarria izan daiteke ikasleentzat mezua hainbat bilaketan jarraituetan zatitzeko. Horrela, aurreko kasuan bilaketaren sekuentzia ondokoa izan daiteke:

- **E/ROW/har:** literaturako apalak berrikusi eta Eleberria (E) saileko lanak bilatu. Hurrenkera alfabetikoaren arabera bilatuz, ikasleek Rowling, J.K. (ROW) aurkituko dute, *Harry Potter eta sorgin harria* (har) liburua egilea.
- **E/LEG/mag:** antzeko bilaketa batek Ursula K. Le Guin (LEG) autorearenganaino eramango gaitu. Bera da *Un mago de Terramar* (mag) liburua egilea.

Liburutegi askotan fikziozko lanak ez dira antolatzen alfabetikoki autorearen arabera, baizik eta bildumetan taldekatzen dira. Horrela denean, formulazioa egokitu beharko da, aipatzen diren lanak zein bildumatan argitaratu diren adieraziz.

- **Taumaturgo:** hurrengo pausoa da termino honek zer esan nahi duen ezagutzea. R.A.E-ren hiztegiak definizio hau ematen: «magoa, mirariak eta gauza zoragarriak egiten dituen pertsona». Sinonimoen hiztegi baten laguntzarekin, ikasleek termino balio-kideen zerrenda bat egiten dute: mirarigile, mago, azti, sorgintzaile, okultista, nekromante, igarle. Zerrenda hau familia bereko beste hitz batzuekin osatuko da: magia, aztikeria, okultismo, ezkutuko zientziak, sorginkeria... Horrela gako-hitzen zerrenda lortuko dugu, beraiekin gaikako katalogoan bilaketa jarraitzeko.
- **Gai honi buruzko lanak:** Gako-hitza guztietatik agian batzuk bakarrik (magia, ezkutuko zientziak, sorginkeria) agertuko dira liburutegiko gaikako katalogoaren aurkibidean, baina nahikoak izan daitezke jakiteko gai horri berari buruzko lan gehiago ote dagoen.
- **Horietako libururen bat 1 edo 8 atalei al dagokie?:** behin zerrenda eginda, esandako ezaugarriekin katalogoan agertzen diren izenburuekin, liburu hauen katalogo-zenbakia hartzen da eta egiaztatzen da sailkapen-zenbakia aipatutako ataletako bati dagokion.

Lehen antolaketa sistemari buruz ari ginenean azaldu dugun moduan, gaikako katalogorik egon ezean, beharrezkoa izanen da apalategietako 1 eta 8 ataletan zuzenean begiratzea, baita liburuak zuzenean begiratzea ere, aipatutako gaiekin harremanik duten egiaztatzeko.

- **Izenburua klabean:** Aurkitutako izenburuen katalogo-zenbakia hartuko dugu, adibidez: 13/HILL/bruj (*Brujas y magos*, Douglas Hill-ena) y N/TOL/hob (*El Hobbit*, J. R. R. Tolkien-ena).

.....

INFORMAZIO ITURRIAK EZAGUTU

Aurretik dokumentuak bilatzea eskatzen duen lan bat egitea proposatzen denean, askotan ikus daiteke nola ikasleek informazioa zuzenean liburu batean bilatzen duten eta nola gaiari buruzko lehen informazioa aurkitzen dutenean, gaia edozein dela ere, prozesua bukatutzat ematen duten. Hortaz, ez dute beharrezkoa jotzen hainbat iturritan bilatzea eta ez dute bereiztasunik egiten informazio-maila edo ikuspegi ezberdinen artean.

Halaber, ikasle gehienek dokumentazio bibliografikoa soilik bilatzen dute, kontuan hartu gabe badirela liburuaren osagarri diren bestelako informazio iturriak.

Azkenik, oraindik ikus daiteke edozein mailatako ikasle askok arazoak dituztela hurrenkera alfabetikoa dela eta, hau gehienbat lehen hezkuntzan gertatzen bada ere. Zalantzarik gabe, dokumentu bilaketa oztopatzen du honek.

Finean, hainbat oinarrizko trebezia sustatzeaz gain, ezinbestekoa da informazioa bilatzeko erabil daitezkeen askotariko materialak ezagutaraztea. Horretarako, garrantzitsua da saio bakoitzaren abiapuntu modura landuko diren liburuak aurkezte, hauen ezaugarri nagusiak labur, argi eta modu errazean azalduz.

Saioa **3** Oinarrizko erreferentzia-lanak ezagutu

Informazio-iturriak aztertu nahian, lehen saio honetan kontsulta-lan nagusiak ezagutu ditugu: hiztegiak, entziklopediak, atlasak, urtekariak, etab.

HELBURUAK

- Erreferentzia-lanen erabilgarritasuna eta informazio-bilaketan duten garrantzia ulertu.
- Erreferentzia-lan nagusien ezaugarriak eta eginkizunak ezagutu eta ezaugarrien arabera ezberdindu.
- Hiztegi eta entziklopedia mota ezberdinak ezagutu eta erabiltzen ikasi.
- Erreferentzia-lanetan bilaketak egiteko hainbat oinarrizko trebezia garatu: hurrenkera alfabetikoaren arabera antolatu, irakurketa diagonalak, laburtzapenen interpretazioa, oharrak hartzea...

Hiztegia, aurkibideak, etab. aise erabili ahal izateko eta bilaketa eraginkortasunez zuzentzeko, garrantzitsua da alfabetoarekin praktikatzea saio hau garatu aurretik. Xede horrekin erabilgarriak izan daitezkeen hainbat jarduera erraz gomendatzen ditugu:

- Ikaskide guztien izenak sailkatu inzialen arabera eta alfabetikoki antolatu.
- Kartoi mehezko fitxak egin letra guztiekin eta hitzak konposatu, irizpide ezberdinen arabera: hiru, lau edo bost karaktere dituzten hitzak, bokal jakin batez hasten diren hitzak, letra jakin bat ez duten hitzak, etab.
- Alfabetoko letra bakoitzeko hitz batzuk aukeratu eta esaldiak eta akrostikoak osatu beraiekin.
- Ejemplo: Adibidez: A-tzo b-ilatatu nuen D-aríorekin f-oko g-ris bat h-erriko i-kastolan.
- Taula batean «tazo»ak edo futbol jokalarien kromoak antolatu, bakoitzean agertzen den pertsonaiaren izenaren arabera.
- Egunkari eta aldizkarietako hitzak moztu eta horma-irudi bat egin bareiekin.
- Hiztegi bat sortu gogokoen dituzten pertsonaien izenekin.
- ...

3.1 Non da arrotza? *(Lehen Hko. 3., 4. maila)*



Elkarrekin zerikusia duten hitzen zerrenda batetik abiatuta, hitz «arrotza» aurkitu behar dugu. Horretarako laguntza materiala erabili behar da, hitzen esanahia jakiteko eta ezaugarri komunak eta balizko ezberdintasunak aurkitzeko.

Ikasleei askotariko hitz multzoa emanen zaie, bertan zerbait komunean duten izenak eta izen bereziak agertuko direlarik: esanahi-eremu berekoak dira, pertsonaia ezagunen batekin (benetazkoa nahiz fikziozkoa) zerikusia dute, herrialde edo garai zehatz bati loturik daude, etab. Horien artean besteekin bat ez datorren hitz bat egonen da.



Adibidez:

- La oreja de Van Gogh
- Klabezina
- drum
- Vivaldi
- tronpeta
- Matisse
- diapasoia
- Dvorák

Hasteko, ikasleek ezagutzen dituzten hitzak edo izenak azpimarra ditzakete eta ondoan idatz dezakete haien ezaugarri nagusiena:

- La oreja de Van Gogh: Pop musika taldea;
- trompeta: musika instrumentua.

Lehen behaketa honek ahalbidetzen du terminoen arteko lotura ezartzea: Adibidean, musika da azpimarratutako hitzak uztartzen dituen.

Hiztegi, entziklopedia eta beste kontsulta-liburuetan egindako bilaketek ahalbidetuko dute termino bakoitza definitzea eta ezarritako irizpidearekin bat datozen ikustea, jokoaren helburua erdietsi arte, hots, hitz arrotza aurkitzea.

3.2 Lehiaketa komodinekin *(Lehen Hko. 5., 6. maila)*



Joko honen oinarria telebistako lehiaketak dira, galdera bat eta lau erantzun posible planteatzen dituztenak eta komodin gisako kanpoko laguntza izateko aukera ematen dutenak. Joko honetan laguntza erreferentzia lanak izanen dira.

Ikastaldea 5 taldetan antolatuko da. Talde bakoitzak ahalik eta galdera gehien zuzen erantzun behar ditu. Horretarako bozeramaile bat eta adituen lau komodin izanen ditu (hiztegia, hizkuntza, entziklopedia eta atlas). Txandaka, talde bakoitzeko ordezkariak egiten diren galderari erantzungo die, egokien deritzon erantzuna aukeratuz.

Adibidez: Zer da jantxakurra?

- Musutruk bazkaltzera datorrena, gonbidatua izan gabe.
- Trikimailua, iruzurra.
- Estralurtarrekin zerikusia duen fenomeno bat.
- Txakur arraza bat.

Zalantzak argitzeko, komodin bakoitza hiru aldiz erabili dezake jokoan zehar. Talde batek huts egiten duenean, hurrengo taldearen txanda izanen da. Adituen komodinek

soilik hitz egin dezakete bozeramaileak laguntza eskatzen dietenean. Orduan bakoitzak esleiturik dituen erreferentzia lanak erabiliko ditu:

- *Hiztegiaren komodina*: euskara hiztegia, sinonimoen hiztegia, materia ezberdinei buruzko berariazko hiztegiak (matematikak, fisika, musika...).
- *Hizkuntzaren komodina*: hainbat hizkuntzatako hiztegiak.
- *Entziklopediaren komodina*: Entziklopedia orokor osoa, liburuki guztiekin eta/edo ordenagailua cd-rom euskarriko entziklopedia batekin.
- *Atlasaren komodina*: Atlas bat edo gehiago, mapa fisiko eta politikoekin eta aurkibide onekin eta/edo ordenagailu bat (entziklopediaren komodinak erabiltzen duen bera erabili dezake), cd-rom euskarriko atlas batekin.

Bozeramaileak unez une komodin egokiena aukeratu behar du, egin zaion galderaren arabera. Aukera egokia egiten ez badu ere, taldeari bilaketa autonomiaz jarraitzen utzi behar zaio. Horrela praktikak berak lagunduko die egindako akatsak antzematen eta zenbait zalantza argitzeko bide arinena eta eraginkorra aurkitzen.

Taldearen adinaren eta trebeziaren arabera irakasleak eta liburuzainak erantzuteko denbora mugatua ezar dezakete.

3.3 Testu itxiak (DBH - Batxilergoa)

Ikasleek itxuraz irakurtezina den testu bat jasoko dute. Beraiek ezagutzen ez dituzten termino eta esapidez betetako testu trinko bat izanen da (beste hizkuntzetako hitzak, hitz arraroak, izenak, zeinen jatorria ikasleek ezagutzen ez duten...). Irakurtzeko eskatuko zaie, pizgarri modura esanez testuan sorpresa bat dagoela gorderik (kontakizun labur bat, abesti bat, bideo irudi batzuk...).

Adibidez: Springfield herria iparraldeko country zabal batean dago. Magnetoskopioa dagoen zapaldan, herrialde horri buruzko dokumental baten ondoan, cartoons eza-gunen atal bat topatuko duzue. Pertsonaia nagusiak jatorriz aipatutako hirikoak dira. Behatu aurretik, I. mendeko errege judu anker baten izena aurkitu behar duzue. Haur-hilketengatik ospetsua da eta berak eta larruazal azafraituko familiaren aitak inisial bera dute.

Testu itxi honen esanahian sartu ahal izateko, ikasleek tresna baliagarria dute: *giltza* joko osoa, hiztegi, atlas eta erreferentziako beste hainbat lanez osatua.

Lan jarraibide batzuk eman dakizkieke, idatz-zati mamitsua itzultzen laguntzeko:

- Hitz ezezagunak azpimarratu.
- Azpimarratutako hitzak bilatzen hasi, esaldien hurrenkerari jarraituz. Horrela, definizioak, lekuak eta pertsonaiak aurkitu ahala, testuinguruak testua interpretatzeko arrastoak emanen dizkie.
- Esaldi bakoitza berridatzi, hitzak ordezkaturik ikasleek ulertzen dituzten beste hitz baliokide batzuekin. Esaldiaren osagai ez diren datu eta azalpenak parentesi artean idatz daitezke.
- Aurreko jarduera batzuei buruz aritzean aipatu bezala, hobe da erabili beharreko erreferentzia lan motari buruzko arrasto gehiegi ez ematea (hizkuntza hiztegia, beste hizkuntza batzuetakoak, sinonimoena, entziklopediak, atlasak...) non eta talderen batek ez badu zailtasun handia bilaketak iturri egokian egiteko. Horrela, ikasleek euren kabuz ezagutuko dituzte material bakoitzaren ezaugarriak eta noraino diren baliagarriak zalantza ezberdinak argitzeko.

Saioa **4** **Informazio liburuak eta fikziozkoak ezagutu**

Jarduera hauen xedea ondokoa da nagusiki: liburutegian gai berari buruz aurki daitezkeen izenburu sorta zabala ezagutzea eta liburu horiek eta beraiek eskaintzen duten informazioa eskuratzeko baliagarriak izan daitezkeen hainbat baliabide praktikan jartzea.

HELBURUAK

- Liburuen aniztasuna, baita hauen euskarri eta ikuspuntuena, ezagutu.
- Fikziozko lanak nola sailkatu eta antolatzen diren ezagutu (generoak, adinak, bildumak...).
- Liburuak aurkitzen ikasi katalogoaren laguntzarekin.
- Dokumentu-liburuetan laguntza tresnak aurkitu (aurkibideak, glosategiak...).

4.1 Argazki-safaria (Lehen Hko. 1., 4. maila)

Jarduera argazki-safari gisa proposatzen da eta bere helburua hauxe da: liburutegian animalia espezie jakin bateko ahal bezain beste ale aurkitzea. Ikastetxe bakoitzak duen fondoaren arabera, safaria saguekin, elefanteekin, hartzekin... edo bildumako liburuetan nahikoa agertzen den beste edozein animaliarekin egitea proposatuko zaie. Ikasgela berean animalia ezberdinak ere bana daitezke. Modu horretan talde bakoitzak egokitu zaion animalia bilatu beharko du.

Safarian parte hartzeko beharrezkoa da animalia horri buruzko liburuak edo beraren argazki edota marrazkiak dituztenak aurkitzea. Horretarako hainbat pauso eman daitezke:

- Zuzenean apaletan bilatu, zoologia atalean nahiz fikziozkoan.
- Bilaketa osatu, kontsulta eginez izenburuen katalogoan («sagu» hitzarekin edo kasuan kasuko animaliarekin hasten direnak) eta gaien katalogoan (horrelakorik ez bada liburutegian, jarduera hauen bidez pixkana-pixkana denon artean egin daiteke).
- Gehiago nahi izanez gero, naturari buruzko liburuetan bila daiteke, aurkibideak aztertuz ikusteko ea animalia hauei buruzko atalen bat duten.

Behin liburuak aurkitu eta animalia-irudiaren ilustrazioen bat agertzen den orrialdeak markatu eta gero, talde bakoitzak orrialde hauen fotokopiak eginen ditu eta liburuaren izenburua hartuko du.

Azkenik, safarian lortutako irudiekin ikasgela apain daiteke, baita erakusketa egin ere argazkiak lortzeko erabili diren liburuekin.

Txikienendako egokiagoa izan daiteke jarduera honen aldaera bat, hots, ikasleei liburuazalen fotokopiak banatzea. Hauekin, haurrek apalategiak berrikus ditzazkete eta emandako lanak bilatzen saia daitezke.

4.2 Blitzen bila (Lehen Hko. 3., 6. maila)

Jarduera honetan ikasleek liburutegiko liburuak miatuko dituzte pertsonaia baten arrastoari jarraikiz. Pertsonaia Blitz, liburutegiko sagua, da. Maskota isekari hau hainbat txarteletan (bilduma honetan argitaratutako irakurketa puntuak baliagarriak izan daitezke) irudikatutako agertzen da mezu batzuen ondoan. Mezu hauek ikasleak bultzatzen dituzte liburu batetik bestera ibiltzera eta arrastoak ematen dizkiete Blitz aurkitzen laguntzeko.

Jarduera hastean talde bakoitzak Blitzen lehen mezua jasotzen du. Bertan jokoaren planteamendua egiten da eta lehen saga aurkitzeko arrastoa ematen da:

Adibidez:

Egun on! Jolastu nahi al duzue gordeketan nirekin? Baina kontuz, oso iheskorra naiz eta. Gaur bertan mendira joan naiz eta galdu egin naiz. Ba al daki norbaitek non nagoen? Ez nago zoon, han animalia asko izan arren. Uste dut lo geratu naizela pinpilinpauxa bati begira.

Irakasleak bilaketa erraztu dezake ikasleei esanez zein pauso eman ditzaketean, Blitzek emandako arrastoetatik abiatuz:

- Saga mendian galdu da. Agian naturari buruzko liburuen artean dago.
- *Ez nago zoon, han animalia asko izan arren.* Seguraski zoologia atalaz ari da.
- Lo geratu da pinpilinpauxa bati begira. Ziurrenik ere gai horri buruzko liburu batean gorderik dago.

Behin sagudun txartela lortuta, Blitzen mezu berri bat aurkituko dute (txartelaren atzealdean idatzirik dago). Beste erronka bat proposatzen die:

Ez da zaila izan, ezta? Liburutegia hain txikia da eta... edo hori uste nuen nik, berriro galdu bainaiz. Oraingo honetan, erromantizismoak galdu nau... Maitasun olerkiak irakurtzen ari nintzen eta burua galdu dut Bécquer izeneko baten bertsoekin ... non nago?

Berriro irakaslearen laguntza baliagarria izan daiteke:

Oraingoan, bilaketa egiteko bide ezberdinetatik jo dezakegu. Zuzenean apalategietara jo dezakegu:

- *Maitasun olerkiak irakurtzen ari nintzen.* Literatura atalera joan gaitezke eta han olerki saila bilatu (liburutegi askotan, olerki liburuak O letra dute katalogo-zenbakian eta sail berezia osatzen dute. Irakasleak azal diezaieke liburutegiko berezko sailkapen sistema).
- *Bécquer izeneko baten bertsoak.* Liburuak hurrenkera alfabetikoan egilearen arabera antolatuta badaude erraza da Bécquerren lanak aurkitzea. Horrela ez balitz, behar-bada, apalategian bilatu aurretik, egileen katalogora eta katalogo-zenbakia hartu beharko dugu.

Beste behin ere, Bécquerren liburu baten barruan, amodiozko olerki baten ondoan, Blitzek hurrengo bilaketa aurkeztuko digu:

Ez dakit zer egin didaten olerkiek, baina neure burua erabat esnatzeko, ariketa fisiko pixka bat egitea erabaki dut. Beti maite izan ditut kirol olinpikoak. Gaur arku-tiroa probatu nahi nuen, baina, ustekabean, istripu txiki bat izan dut: gezi batek hemen iltzaturik utzi nau. Lagun iezadazue!

Hemen ere mezua pauso jarraituetan banatzeak bilaketa erraztuko du:

- *Beti maite izan ditut kirol olinpikoak.* Kirol olinpikoei buruzko izenbururen baten bila has gaitzke, informazio lanen kirol sailean. Beste aukera bat ere badugu: katalogora jo dezakegu eta izenburu hori duen libururen bat edota zerikusirik duten terminoak («olinpiadak», «kirolak» ...) aurkitzen saia gaitzke.
- *Gaur arku-tiroarekin proba egin nahi nuen:* Behin kirol olinpikoei buruzko liburua topatu eta gero aurkibidean «arku-tiroa»ri buruzko atala bilatu behar dugu (aurkibide alfabetikoa, izanez gero, aukera zuzena litzateke).

Eta horrela, bata bestearen ondotik, liburuetako orrien artean aurkituko ditugu beste liburutegiko esplorazio-jarduera batera eramango gaituzten mezuak.

Aipatu bezala, irakaslearen laguntza beharrezkoa da. Jokoa aurrera doan heinean, ordea, gero eta gutxiago behar da bere esku-hartzea. Irakasleak berak balioztatuko du taldearen autonomia maila, baita noiz den une egokia ikasleei bakarrik ikertzen uzteko.

5. eta 6. mailako taldeekin, interesgarria izan daiteke ikasleek beraiek Blitzen txartelen bat gordetzea apalategien artean eta arrastoak idaztea, ikaskideek aurki dezaten.

4.3 Liburuak denontzat (DBH - Batxilergoa)



Ikasleei proposatuko zaie gai zehatz bati buruzko bibliografia zorrotza egitea. Gaia beraiek aukeratuko dute iradokizun zerrenda batetik (beldurra, artea, itsasontziak...edozein gaik balio du, beti ere aurretik egiaztatu bada fondoan berari buruzko hainbat izenburu daudela).

Behin gaia aukeratuta, dituen balizko ikuspegi, atal eta adarkatze guztiak aztertu behar dira eta gako-hitzen zerrenda bat egin behar da hiztegi, entziklopedia eta beste kontsulta-lanen laguntzaz.

Adibidez:

ITSASONTZIAK: ontzia, itsasontzia, belaontzi, gerraontzi, txalupa, arrantza-ontzia, korazatua, nautika, nabigazioa, estropadak, marinel, kapitain, arrantzale, branka, txopa, itsaso, pirata, sirena, itsasoan galdutakoa,...

Zerrenda hau abiapuntua da katalogoan bilaketa egiteko, gaien nahiz izenburuen katalogoan. Bilaketaren emaitza lehen bibliografia orokor bat da.



Hurrengo pausoa katalogoan aurkitutako liburuak aztertzea da, aurkibideak, eskemak eta edukiak begiratzuz. Honen helburua gaia nola egituratzen den ikustea da, zerrenda atal ezberdinetan antolatzeko. Horrela, pixkanaka, hasierako bibliografia aberastu eta osatuko da, osatzen duten liburuen ñabardura eta ezaugarriekin.

Adibidez:

- Nabigazioaren historia
- Itsasontziak: tipologia eta ezaugarriak
- Nabigazioa kirol gisa
- Nabigatzaile ospetsuen biografiak
- Itsasontzi, marinela eta arrantzaleei buruzko istorio eta eleberriak
- Piraten istorioak

Bibliografia hau prestatzeko oinarri gisa eskolako liburutegiko fondoak har daitezke. Gero liburu zerrenda hau liburutegi publikoan, liburutegietan edo beste zentro espezializatu batzuetan aurkitutakoekin osatu daitezke.

Behin lan bibliografikoa amaitu eta gero foileto bat egin daitezke, liburuak modu argi eta erakargarrian aurkeztuko dituenak. Ilustrazio xumeren bat ere izan dezake. Foileto honen fotokopiak egin daitezke eta ikasle, irakasle, gurasoen eta abarren artean banatu. Dokumentazio-lanaren garrantzia agerian jartzeko funtseskoa da beraz hedatzea. Horregatik, komeni da ahal den heinean material hauek ikastetxetik kanpo ezagutaraztea, liburutegietara, liburutegietara, aldizkari espezializatuetara eta abarretara bidaliz.

Aukeraketa hau gehiago nabarmentzeko beste era bat erakusketa bibliografiko bat egitea da. Erakusketan, liburutegiko liburuez gain, liburutegi publikoak, ikasleek eta beste hainbat erakundek utzitako materialak ere erakus daitezke.

Adibidean, erakusketa horrela osatua egon liteke:

- Erakusketa bibliografiko bera, liburuxkan agertzen diren liburuez osatua. Liburu hauek liburutegi publikoaren laguntzarekin bildu eta ataletan banatuko dira.
- Itsasontzi-maketaren bilduma, herriko modelismo denda batek utzia.
- Nabigaziorako material sorta: iparrorratza, lema, marinela jantzi bat, mapa, itsasontziko liburuak... Ikasle eta irakasleen artean bilduko dituzte, itsas-museo baten laguntzarekin.

Horrela, jarduerak hasierako helburua gaindu dezake eta teknika eta prozedura konplexuagoak martxan jartzea eskatzen duen talde proiektu gisa gara daitezke, 6. atalean ikus daitezkeen moduan (dokumentazio-lana).

Saioa **5** Bibliografikoak ez diren materialak

Informazio iturriari eskainitako azken saioak aurkezten dizkigu liburua ez den beste material eta euskarriek ematen dizkiguten aukerak.

HELBURUAK

- Bibliografikoak ez diren informazio iturrien ezaugarriak ezagutu.
- Formato eta euskarri ezberdinetan informazioa bilatzen ikasi, baita berau erabiltzen ere.
- Prentsari aitortu gaurkotasan handiko informazio iturri gisa duen balioa.
- Interneten bidez munduko edozein lekutan informazio kopuru izugarria lortzeko dugun aukera ezagutu.

5.1 Zinari buruzko hormirudia *(Lehen Hko. 1., 4. maila)*

Haurrendako film interesgarrienen iragarki taula bat egiteko xedearekin, ikasleek hainbat materialetan begiratuko dute (egunkariak eta aldizkariak, bideoak, cd-romak, web orriak...). Hauen ezaugarriak aztertuko dituzte, baita hauek duten informazioa modu erraz eskuratzea ahalbidetzen duten tresnak ere (aurkibideak, karatulak, estekak...).

Proposamen hau gauzatzeko, ikasle talde bakoitzak (hobeto 5-10 haur badira) horma bat izanen du (ikastetxeko korridorean) haurrendako zinearen historiako gertakari aipagarrienak agertuko dituen hormirudi bat egiteko.

Hormirudietan ager daitezke ikasleek egindako marrazkiak, moztutako argazkiak, fotokopiak, errotuluak eta, noski, azalpenezko testuak. Hauek, laburki bada ere, gaiari buruzko hainbat informazio eskainiko dute.

Hauek dira hormirudiak izan ditzakeen hainbat atal:

- Karteldegia: azken estreinaldiak.
- Haurrendako zinearen historia.
- Haur aktoreak.
- Marrazki bizidunak.
- Zinera eramandako ipuinak...

Hormirudia egiteko ondoko pausoak eman daitezke:

- *Gaiari buruzko mahaingurua ikasleekin:* zer motatako zinea atsegin duten, zeintzuk diren ikusitako azken filmak, gurasoei gehien gustatzen zaizkien pelikulak (aldez aurretik eska dakieke euren etxeetan inkesta labur bat egiteko), entzuna duten zine-matografia-trikimailu edo efektu bereziren bat etab. Gaiari buruzko dokumental bat ikustea ere lagungarria izan daiteke eta iritzien elkartrukatzea erraz dezake.
- *Hormirudiaren atalak zehaztu:* aurreko elkarrizketa testuinguru egokia da hormirudian sartuko diren atalak erabakitzeko, beti ere kontuan hartuz ikasleen arreta gehien piztu duten alderdiak.
 - *Iturrietan begiratu:*
 - egunkariko karteldegia
 - haurrendako aldizkariak
 - bideo dokumentalak
 - web orriak
 - cd-romak
- *Hormirudia osatzea.*

5.2 Liburutegia iragarri *(Lehen Hko. 5., 6. maila)*

Jarduera honen mamia eskola liburutegiari buruzko publizitate kanpaina prestatzea da. Horretarako prentsan, telebistan, irratian, kalean (autobus geltokietan, telefono-kabinetan, hesietan...), interneten eta ikastetxera nahiz etxeetara iristen diren publizitate-foiletoetan agertzen diren iragarkien ereduari jarraituko zaio.

Planak hainbat ekimen izan ditzake (kartelak, esku-paperak, iragarkiak ikastetxeko aldizkarian edo web orrian, aurkezpen dramatizatuak ikasgeletan, iragarki laburrak irratian, etab.). Ekimen hauek lan batzorde ezberdinetan garatuko dira: prentsa, bideoa, irratia, internet...

Talde bakoitzaren lana mota guztietako enpresa eta produktuen askotariko iragarkiak bilatzean datza, horretarako eskolako liburutegian aurkitutako edota jarduera dela eta bildu diren publizitate materialak berrikusiko direlarik. Ondoren, material hau aztertuko da, publizistek erabili dituzten estrategia ezberdinetan arreta jarriz: lelo mota, balizko bezeroa erakartzeko modua, erabilitako baliabide grafiko edo ahozkoak, etab.

Azterketa honetan oinarrituz hainbat adibide proposatuko dira. Ideiak, hitz jokoak edo irudiak egokituko dira eta eskola liburutegia ezagutarazteko iragarki bat diseinatuko da.

Koordinazio bilera bat eginen da eta bertan talde bakoitzak bere publizitate proiektua aurkeztuko du. Lanerako ildo komunak ezarriko dira eta hauetatik abiatuz kanpaina hainbat «frontetan» garatuko da.

Jarduera honen sarrera gisa publizitateari buruzko bideo dokumental bat ikustea lagungarria izan daiteke. Honek lagun dezake publizitatean erabiltzen diren hainbat teknika hobeto ulertzen eta taldea motibatzen proposamena egiteko.

5.3 Hemendik mundura (DBH - Batxilergoa)

Jarduera honen bitartez ikasleek askotariko material ez bibliografikoa bilduko dute, eremu geografiko zehatz bati buruzkoa: eskualde bat, harrialde bat edota kontinente bat. Bildutako guztiarekin liburutegia girotu eta erakusketa dokumental bat eskaini beharko dute, aukeratu eremuko geografia, historia, folklorea eta beste hainbat oinarritzko alderdi ezagutarazteko.

Ikerketa liburutegian hasiko da. Katalogoen laguntzarekin eta geografia atala sakonki aztertuz (honetarako fondoak nola dauden antolatuta ezagutzu behar da), ikasleek mapak, bideoak eta eremu horri buruzko beste hainbat material berezi aurkituko dituzte.

Adibidez: Afrika. Bideoak, diskoak, cd-romak, web orriak... bila daitezke

Jarduera honek badu beste atal bat: egunkariak aztertzea eta ikertzen ari diren gaiari buruz denbora epe adierazgarri batean (hilabete bat edo bi gutxienez) argitaratutako berri, artikulua eta iritzi komentario garrantzitsuenen atzera begirako azterketa egitea. Aurkitutako berriak dossier batean antolatu daitezke.

Adibidez: Afrikari buruzko berrien dossier bat antolatu daiteke herrialdeka, eremuka (magreb, Saharaz beitiko herrialdeak, laku handien eremua...), arazo motaren arabera (emigrazioa, apartheid-a, gerrak...) edota beste hainbat irizpideren arabera.

Liburutegian aurkitutako informazioaz gain, ikastetxea aipatu eremuko norbaitekin harremanetan jar daiteke, komunitate hauekin lotura duten elkarte edo erakundeen bitartez. Hurbilketa honek bestelako material eta informazioak biltzea ahalbidetu dezake: kondairak eta ahozko tradizioa, ohiturak, argazkiak, esku-lanak...

Ikasleek eremuari buruz lortutako informazio eta material guztia antolatuko dute eta hauekin guztiarekin erakusketa eginen dute liburutegian, ikastetxe osoak ikus dezan. «Hemendik ...ra» errotuluak liburutegitik bertatik mundua ezagutzeko aukera iradokitzen digu.

DOKUMENTUAK BILATU

Ikasleek dokumentazio lan bati aurre egin behar diotenean, ikerketa prozeduraren zailtasunaz gain beste hainbat oztopo ere aurkitzen dituzte, hala nola askotariko iturriak erabiltzeko zailtasuna edota liburutegian autonomiaz ibiltzeko arazoak. Askotan lana planteatzeko orduan ere mugak dituztela ikusten da (ez dute kontuan hartzen zein helbururekin bilatzen duten informazioa, ez dira gai ikasgaia zehaztasunez formulatzeko, ez dute alde aurretik dakitena kontuan hartzen...).

Behin gaiari buruzko dokumentu batzuk aurkituta, ikasle askok ez dakite nola irakurri garrantzitsuen hautatzeko. Materialak pilatzen dituzte inolako irizpiderik gabe eta, azkenik, ez dira gai informazioa berregiteko eta aurkitutako testuak hitzez-hitzez errepikatzen dituzte.

Arazo hauen aurrean, proiektu praktikoak egitea entrenamendu motibagarria izan daiteke informazioa bilatzeko. Azken atal honetan liburutegian garatzeko dokumentazio lan hainbat eredu aurkezten dira. Nolabaiteko konplexutasuna duten proposamenak dira, lehen aipatutako jarduerak baina lan handiagoa eskatzen dutenak (5-6 lan saio gutxienez). Irakasle taldearen eta liburutegiko arduradunen arteko koordinazio mailak jarduera honen eragina baldintzatuko du ikasleen prestakuntzari dagokionez, baita jarritako helburuak lortzeko ere.

HELBURUAK

- Informazioa eguneroko bizitzako hainbat egoerari arrakastaz aurre egiteko baliagarria dela ulertu.
- Informazio behar zehatz batetik abiatuz, dokumentuen bilaketa baten plangintza eginen ikasi, prozesua lan etapa ezberdinetan banatuz.
- Liburutegiko baliabideak eraginkortasunez erabili, bertako antolaketa sistema eta funtzionamendu arauak kontuan hartuz.
- Informazioa hautatzeko irizpideak garatu, planteatutako proiektuak eskatzen duenaren arabera.
- Edozein proiektutan lortutakoa aberasteko talde lanak duen balioa ezagutu.

6.1 Teletekako berriak *(Lehen Hko. 1., 4. maila)*

Telebistak duen ahalmen motibatzalea kontuan hartuz, ikasleei proposatuko zaie albistegi bat prestatzea, bideo formatoan. «Teleberri» bateko ohiko atalak banatuko dira talde txikien artean eta dokumentu bilaketa ezberdinak garatuko dira albisteak idazten laguntzeko.

Lehenik eta behin albistegiaren izaera zehaztu beharko da:

- Albiste berrienak
- Albiste pozgarriak
- Zientziaren inguruko albiste bitxiak
- Eredu batzuetatik abiatuta asmatutako albisteak
- ...

Behin albisteak hautatzeko irizpidea finkaturik, ikastaldea talde txiki edo batzordeetan banatuko da. Hauek izanen dute atal ezberdinen ardura: albiste Nazionalak, Nazioartekoak, Hezkuntza, Kirolak, Eguraldia...

Prensa eta hedabide ezberdinetako albistegiak berrikustea baliagarria izanen da atal bakoitzeko balizko albisteen lehen hautaketa egiteko eta behin-behineko izenburuak idazteko.

Informazio hau abiapuntutzat hartuz, talde bakoitzak egin beharreko bilaketak antolatu ditu liburutegiko materialen laguntzarekin. Garrantzitsua da atal honetan liburutegian dauden iturri guztiak kontuan hartzea (entziklopediak, atlasak, kontsulta liburuak, fikziozko liburuak, bideoak, web orriak...) eta fondoan bilaketak egitea errazten duten baliabide guztiak erabiltzea: sailkapen taula, katalogoak... Irakaslearen parte-hartzea bilaketen planifikazioan eta garapenean taldearen heldutasun mailari egokituko zaio, ezinbestekoa da, ordea, ikasleei laguntzeko beti prest egotea, hauek zailtasunik edo zalantzarik izanez gero.

Behin gai bakoitzari buruzko dokumentazioa berreskuratu eta berrikusi ondoren, informazio garrantzitsuena hautatu behar da, albisteak izanen dituen lerro nagusiekin oinarritzko eskema bat prestatuz.

Une honetan taldeak informazioak izanen duen formatoa erabakitzeke aukera izanen du:

- Estudioan irakurritako albisteak, grabatutako irudiez lagundua
- Korrespontsal batekin konexioa
- Pertsona esanguratsuren bati elkarrizketa
- ...

Ondoren, albisteak idatziko dira, baita hauek grabatzeko aurreikusten diren behar tekniko guztiak ere, hala nola artxibo irudiak, kanpoan hartutako irudiak...

Azkenik, albistegia filmatu, editatu eta jendaurrean erakutsiko da.

6.2 Bibliotours Txangoak *(Lehen Hko. 5., 6. maila - DBH)*



Ikasturte amaieran ikasbidaia egiteko gonbidapena aitzakitzat hartuta, ibilbide, hiri edota naturgune bati buruzko ikerketa egitea proposatuko da.

Ikastaldeari proposatuko zaio aukeratutako lekuari buruzko bidai-gida bat egitea. Gida hau bilaketa egituratzeko tresna izanen da. Horrela, gida txangoari etekin didaktiko handiagoa atertzeko lagungarria izateaz gain, eskolako liburutegirako baliabide dokumental berria izanen da, gainerako ikasleek kontsulta dezaketena eta hauek liburutegian duten protagonismoa sendotzen lagunduko duena.

Lehenik eta behin bidaiaren norakoa hautatu behar da. Noski, ikastetxe bakoitzean ezartzen diren ereduak baldintzatuko dute ikasleen hautaketa (gutxi gorabeherako distantzia, txangoaren iraupena, bisitaldi motak -monumentuak, naturguneak...-, etab.). Lehen erabaki hau hartzeko ere ikerketa lana egin behar da, ikasleek ezarritako ezagueriak dituzten leku interesgarriak aurkitu behar baitituzte.

Adibidez:

Irakasleak baldintza gisa jartzen du aukeratzen den lekuak interes historikoa izatea, baita arkitektura lan garrantzitsuren bat ere. Txangoaren iraupena bi edo hiru egunekoa izanen da, bidaiaria autobusez eginen da eta ibilaldiaren abiapuntua gehienez lau ordutara egonen da. Baldintza hauek ezarrita, ikasleek Soria eta Segoviako hainbat gazteluetatik barna ibilaldi bat antolatzea erabaki dute.

Behin ibilbide mota eta abiapuntua erabakita, ikasleek txangoaren bide osoa diseinatu behar dute. Horretarako, plano batean radio bat marka dezakete, eta radio horrek adieraziko du adostutako denboran egin dezaketena bidea. Seinalatutako eremu horretan puntu interesgarrienak bila ditzakete. Lan hau hainbat ikastaldek aldi berean eginez gero, bilaketaren emaitza aberatsagoa eta anitzagoa izanen da. Talde bakoitzak egindako hautaketa arrazoitu beharko du eta ondoren denon artean adostuko da behin betiko ibilbidea.

Ikerketa aurreratu ahal izateko, taldeek bilaketa modu ezberdinetan antolatu dezakete, txangoaren helburuei hobekien egokitze aldera:

- Ibilaldiaren puntu ezberdinak banatuz. Horrela talde bakoitzak egokitu zaion lekuari buruzko informazio sakona bilatuko du.

- Ibilaldi osoaren alderdi ezberdinak banatu taldeen artean (arte, kondaira, gastronomia, paisaia...). Honek, aldi berean, askotariko informazio iturriak banatzea erraztuko luke.

Lehenengo lan egiteko modua egokia bisita asko eta askotarikoak eginen diren txangoak prestatzeko. Bigarrena, aldiz, egokiagoa da bidaia trinko bat prestatzeko, hots, norako bakar bat edo bat baina gehiago baina berdintsuak dituen.

Ikasleek informazio garrantzitsuena aurkitu, bildu eta laburbildu ahala, batzorde txiki batek bidai gida egituratuko du eta behin betiko itxura emanen dio. Testu deskribatzaileez gain, argitalpen honetan sar daitezke beharrezkotzat jotzen diren argazki, mapa, eskema eta material grafiko guztiak.

Azkenik, gidaren fotokopiak atera eta txangoan parte hartu behar dutenen artean banatuko dira, bidaiari zehar kontsulta dezaten. Interesgarria izan daiteke orri zuri batzuk uztea, ikasleek bidaiari zehar oharrak har ditzaten. Horrela itzulitakoan ohar hauekin gida osa daiteke. Argazkien dossier bat prestatzea ere talde proiektu hau osatzeko beste aukera bat izan daiteke.

6.3 Aste beldurgarria (DBH - Batxilergoa)

Bigarren hezkuntzako ikasleek gehien maite dituzten generoen artean beldurrezkoa dago: muntzoi buruzko kondairak, film beldurgarriak, kontakizun eta eleberrizuzgarriak... Hauek guztiak liluratuta uzten dituzte. Interes hau aprobetxa daiteke baliabide motibatzailerik gisa, eskolako liburutegian dokumentu-bilaketa jarduerak bat sustatzeko.

Proposamen zera da: eskolako liburutegian beldurrezko generoari (zinean, literaturan, komikietan) lotutako jarduerari eskaintako aste bat ospatzea. Aste honetan autoreak, istorioak eta pertsonaiak hartuko dira kontuan.

Proiektu hau modu askotan gauza daiteke:

- Liburu erakusketa
- Liburuaren aurkezpena
- Literaturako deskribapenetan oinarritutako dekorazioak
- Pertsonaien katalogoa
- Genero honetako autore adierazgarriren batekin elkartzeko
- Beldurrezko istorioak kontatzea
- Beldurrezko pasarteak ozen irakurtzea
- Bideo-emanaldien ziklo bat
- Beldurrezko filmen soinu-bandeia buruzko disko-foroa
- Zinean onarritutako makillaje eta karakterizazio tailerrak
- ...

Edozein dela ere, ikasleek garatzen duten proposamenak baldintza hau bete behar du: liburutegitik egindako dokumentazio-bilaketa oso batean oinarrituz antolatatu behar da.

Adibide gisa, proiektu zehatz bat azalduko dugu: AMESGAIZTOEN ETXEA: plangintza honen bidez ikastetxea (korridoreak, eskailerak eta abar) beldurrezko paisaia baten antzera girotu nahi da, astebetez giro hau inspiratzen duten literatur eta zine iturriak ezagutzera bultzatuz.

Behin ikaskideen artean proiektua zehaztu dutenean, komeni da bere alderdi guztiak banan-banatu aipatzea eta osatuz jarduerak edo elementuak zerrendatzea. Zerrenda taldearen ideia-andana gisa planteatu daitezke, eta beste jarduerak batzuetan proposatu bezala, ondoren denon artean hautatu ditzakete ekimen interesgarrienak.

AMESGAIZTOEN ETXEA atal hauek izan ditzake:

- PAISAIA APAINGARRIAK IKASTETXEKO KORRIDOREETAN: Beldurrezko generoaren klasikoetako literatur-deskribapenetan oinarriturik (B. Stokerren *Dracula*, E. A. Poeren *Kontakizunak*, G. A. Bécquerren *Kondairak*, etab.), ikasleek hormirudi apaingarriak egingo dituzte, plastika irakasleak lagunduta. Irudi bakoitzaren ondoan oinarritzen den testuaren zati bat agertuko da, baita egilearen izena eta liburuaren izenburua ere.
- ARGAZKI GALERIA: Era guztietako muntroak, zineko eta literaturako lan ezagunetatik hartuak. Irudiaren ondoan (hauek ilustrazioen fotokopiak, ikasleek egindako marrazkiak, argazki muntaiak, etab. izan daitezke), bere ezaugarri nagusiak azalduko dituen ohar bat jarriko da. Hemen ere garrantzitsua da pertsonaia bakoitzaren jatorria azaltzea.
- GIRO-MUSIKA ATSEDENALDIAN: Ikasleek zirrara sortarazten duten hainbat musika zati aukeratu ditzakete, film ezagunetatik edo musikagile klasiko ospetsuen lanetatik, aste osoko atsedendietan entzuteko.
- HILOBIAS HARAINDIKO AHOTSAK: Parte-hartzaileek istorio zirrargarriak entzuten ahalko dituzte besaulki batean eserita eta entzungailuak jarrita. Aldez aurretik, ikasle talde batek ipuinak aukeratu eta zinta batean grabatuko ditu.
- AMESGAIZTO HERRIKOIEN MAPA: Liburutegi ondoan, mapa batean aurkitzen ahalko dituzte kondaira beldurgarriak gertatu izan diren lekuak: Salengo sorginak, Zugarramurdiko kobazuloak, Vlad-en kondaira, Transilvania... Dokumentazio lana bereziki garrantzitsua da atal honetan, folklore, antropologia eta literatura lanak arakatu behar baitira.

Proiektua itxuratu dutenean, informazio bilaketa dibertsifikatu egiten da, aste beldurgarriko antolatutako jarduerak bakoitzak dagokion euskarri dokumentala izan dezan.

Horrela, ikasle batzuek literatura iturrietan leku beldurgarrien deskribapenak bilatzen dituzten bitartean, beste batzuek beldurrezko zinean erabiltzen diren adierazpen baliabideei buruzko informazioa hautatu edo gai honi buruzko irakurketa gida bat prestatu dezakete.



.....
LIBURUTEGIA ETA IKASKUNTZA AUTONOMOIA
Baliabide dokumentalak aurkitzeko,
ulertzeko eta baliatzeko gida didaktikoa

ERANSKINAK

I Eranskina

Liburutegiei buruzko haurrendako liburuak

- BALLESTEROS, José Manuel. *Las Aventuras de Pepe*, Madril, Gaviota, 1999.
- BALZOLA, Asun. *Guillermo un ratón de biblioteca*, Madril, Susaeta, 1991.
- CAMPBELL ERNST, Lisa. *¿Dónde está el libro de Clara?*, Bartzelona, Juventud, 1999.
- CANO, Carles. *Cuentos roídos*, Madril, Anaya, 1994.
- DAHL, Roald. *Matilda*, Madril, Alfaguara, 1989.
- FERNÁNDEZ ALCALDE, Carmelo. *Sácame de aquí*, Palentzia, Cálamo, 1998.
- GÓMEZ CERDÁ, Alfredo. *El Monstruo y la bibliotecaria*, Bartzelona, Noguer, 1991.
- GONZÁLEZ SUÁREZ, Eduardo. *Un Trago risueño en la biblioteca*, Madril, Montena, 1988.
- JONAS, Anne. *Ulises y Casimiro*, Bartzelona, Zendera Zariquiey, 2000.
- LINAZASORO IZAGIRRE, Karlos. *Las Botas rojas*, Madril, Anaya, 2000.
- MAHY, Margaret. *El Secuestro de la bibliotecaria*, Madril, Alfaguara, 1999.
- STURNIOLO, Norma. *El Mono que quería leer*, Madril, Anaya, 1999.
- STURNIOLO, Norma. *La Música de las tinieblas*, Madril, Anaya, 2000.
- ZAFRA, José. *El palacio de papel*, Madril, Anaya, 2001.

II Eranskina

Ozenki kontatu edo irakurtzeko haurrendako ipuinak

- BANNERMAN, Helen. *La historia del pequeño Bábachi*, Bartzelona, Juventud, 1998.
- CANO, Carles. *Cuentos para todo el año*, Madril, Anaya, 1999.
- DURÁN, Teresa. *El duende laborioso*, Bartzelona, La Galera, 1996.
- GRIMM, Jacob y GRIMM, Wilhelm. *Los siete cuervos*, Madril, Gaviota, 1997.
- HAUFF, Wilhelm. *El pequeño narizotas*, Bartzelona, Alba, 1998.
- JANER MANILA, Gabriel. *Cuando las aguas duermen*, Bartzelona, La Galera, 1996.
- JANOSCH. *¿Qué bonito es Panamá!*, Madril, Alfaguara, 1998.
- KISS, Kathrin. *¿Qué hace un cocodrilo por la noche?*, Madril, Kókinos, 1998.
- LIONNI, Leo. *Frederick*, Bartzelona, Lumen, 1999.
- LOBEL, Arnold. *Historias de ratones*, Pontevedra, Kalandraka, 2000.
- MCGILL-CALLAHAN, Sheila. *Los hijos de Lir*, Bartzelona, Lumen, 1998.
- MOSER, Erwin. *El ratón, el sapo y el cerdo*, Madril, SM, 1996.
- PLATH, Sylvia. *El paquete sorpresa*, Madril, SM, 1997.
- RODARI, Gianni. *Los negocios del señor gato*, Madril, Anaya, 1999.
- SÁNCHEZ, Gloria. *Siete casas, siete brujas y un huevo*, Madril, SM, 1997.
- STIEMERT, Elisabeth. *¿Qué pasa ahí arriba?*, Madril, Kókinos, 1999.
- VELTHUIJS, Max. *La rana y el extraño*, Bartzelona, Timun Mas, 1995.

BIBLIOGRAFIA

- «El Acceso a la información de los escolares. 25 propuestas y reflexiones», *Educación y biblioteca*, Madril, Tilde, 1998.
- ARELLANO, Villar. *Formar usuarios en la biblioteca*, Salamanca, Germán Sánchez Ruipérez Fundazioa, 2001.
- BARÓ, Mónica y MAÑÁ, Teresa. *Formarse para informarse*, Madril, Celeste, 1996.
- *La biblioteca escolar: un derecho irrenunciable*, Madril, Asociación española de amigos del libro infantil y juvenil, 1998.
- *Bibliotecas escolares*. Madril, Hezkuntza eta Kultura Ministerioa: Programa de Nuevas tecnologías de la Información y de la Comunicación, 1998 (cd-roma).
- COUET, Madeleine. «Hacia una tipología de las actividades de la biblioteca escolar», *Educación y Biblioteca*, Madril, Tilde, 1990.
- GARCÍA GUERRERO, José. *La Biblioteca escolar un recurso imprescindible*, Sevilla, Andaluziako Junta. Hezkuntza eta Zientzia Kontseilaritza, 1999.
- GAZPIO, Dora. *Soportes en la biblioteca de hoy: desarrollo de las habilidades de información*, Buenos Aires, CICCUS, 1998.
- JORDI, Catherine. *Guía práctica de la Biblioteca Escolar*, Madril, Germán Sánchez Ruipérez Fundazioa, 1998.
- *Le nouveau guide pratique du responsable CDI: complément mise à jour*. Novembre 1999, Paris, Weka, 1999.
- RUEDA, Rafael. *Bibliotecas escolares: guía para el profesorado de educación primaria*, Madril, Narcea, 1998.
- VALVERDE, Pedro. *La biblioteca, un centro-clave de documentación escolar*, Madril, Narcea, 1997.
- *Voyage au centre de la documentation: Fichier d'activités guidées au C.D.I.*, Paris, Magnard: Fabden CDI, 1993.

ESKOLAKO LIBURUTEGIKO
BILDUMA

BLITZ

Liburutegiko saga



sorta **Urdina**

Blitz Hezkuntza eta Kultura Departamentuan

1. **Nafarroako eskoletako liburutegien azterketa: hurbiltze saioa**
Hobetzeko gakoak
2. **Eskolako liburutegia nola antolatu**
Alderdi tekniko eta pedagogikoak
3. **Sailkapen Hamartar Unibertsala Eskola Curriculumetan**
Unibertsitatekoak ez diren eskoletako liburutegietan fondoak gaiz gai antolatzeko jarraibideak
4. **Eskola liburutegiaren informatizazioa. ABIES 2.0 programa**



sorta **Berdea**

Blitz Eskolan

1. MARIANO CORONAS
Eskolako liburutegia
Irakurtzeko, idazteko eta ikasteko gunea
2. VÍCTOR MORENO
Irakurketa, liburuak eta irakurtzera bultzatzea
Hausnarketak eta proposamenak
3. VILLAR ARELLANO YANGUAS
Liburutegia eta ikaskuntza autonomia
Baliabide dokumentalak aurkitzeko, ulertzeko eta baliatzeko gida didaktikoa